

Igerilariaren gida

GZ

Getaria - Zarautz

Igandea, 2025eko uztailaren 27a, 11:00etan

Distantzia: 2.850 m

Partaide kopurua: 3.000

PROGRAMA

Ostirala, larunbata eta igandea, uztailak 25, 26 eta 27**Igerilariaren poltsa jasotzea**

Ostirala 25: 12:00-20:00
Larunbata 26: 12:00-20:00
Igandea 27: 7:30-9:30*

Munoa Plaza, Zarautz

Derrigorrezkoa da nortasun agiria zein izen-ematearen ziurtagiria aurkeztea igerilariaren poltsa eta dortsala jasotzeko. Pertsonalki jaso ezin bada, hirugarren batek ere jaso ahal izango du parte-hartzailearen NANren fotokopia eta izen-ematearen ziurtagiria erakutsita.

*Izen-ematea egiteko garaian zerbitzu hau kontratatu dutenentzat soilik.

Igandea, uztailak 27**Autobus zerbitzua Zarautzera**

Online bidezko salmenta

Munoa Plaza, Zarautz

Iruñea, Bilbo, Gasteiz eta Donostiatik autobus zerbitzua jarriko da Zarautzera igerilari zein herritar ororentzat. Autobusak ez du geldialdirik egingo. Pertsona bakoitzak nahi adina plaza erreserbatu ditzake. Ez da dirurik itzuliko

ORDUTEGIA ETA IRTEERA

- Iruñea: 7:30ean irteera (Juan XXIII. plazako autobus geltokitik)
- Bilbo: 7:30ean irteera (Arte Ederren pareko autobus geltokitik, Museo Plaza, 3.)
- Gasteiz: 7:30ean irteera (Autobus geltokitik)
- Donostia: 8:30ean irteera (Illunbeko zezen plazako aparkalekutik)

Bueltako zerbitzua Zarautzik hiriburuetara 18:00etan izango da (Munoa plazatik).

Donostia eta Iruñea hiriburuetara itzultzeko, bigarren itzulera autobus bat egongo da. Autobusa 13:00etan izango da eta Zarautz-Donostia-Iruñea ibilbidea egingo du.

Igandea, uztailak 27**Autobus zerbitzua igerilariarentzat**

Munoa Plaza, Zarautz



Getaria (irteera gunea)

AUTOBUS ZERBITZUA ZARAUZTIK GETARIARA (irteera gunera): 9:00-11:15

Doako zerbitzua.

Antolatzaileek partaideentzako autobus zerbitzua jarriko dute Zarautzik Getariako irteera gunera joateko. Autobusak 9:00etan hasi eta 11:15ean amaituko dira, urre, zilar edo brontze koloreko txanoa dutenentzat izan ezik. Hiru talde hauentzat, autobus zerbitzua 10:30ean amaituko da. Zerbitzu hau aukerakoa da.

Hala ere, igerilariaren ARDURA da irteera gunera joatea, antolatzaileen eta irteera epailearen agindupean egoteko.

Igandea, uztailak 27**Kontsigna: poltsak utzi/jaso**

Bi kontsigna:

Munoa Plaza, Zarautz

Getaria (irteera gunea)

Igerilariaren poltsan 2 zinta aurkituko dituzue, kontsignan utziko duzuen motxilan itsatsi beharrekoak (Zarauzko eta Getariako kontsignak). Zinta horiek dortsal zenbakia dute, eta identifikazioa erraztuko dute.

ARROPA UZTEKO ETA JASOTZEKO ORDUTEGIA:**Zarautzen (Munoa Plazan):**

- Utzi (Zarautz, Munoa Plazan): 08:30 – 10:30
- Jaso (Zarautz, Munoa Plazan): 12:00 – 14:30

Getarian (portuan, irteera gunean):

- Utzi (Getariako Portua): 10:00 – 11:30 (Txano kolore bakoitzak/irteera taldeak kolore bereko konoa duen furgoneta esleitua du)
- Jaso (Zarautz, Munoa Plaza): 12:00 – 14:30

GETARIKO KONSIGNAREN AZKEN ORDUA, txanoaren kolorearen arabera:

● Urrea	10:30	● Berdea	11:00	● Urdina	11:15
● Zilarra	10:40	● Beltza	11:05	● Arrosa	11:20
● Brontzea-laranja	10:50	● Horia	11:10	● Gorria	11:25


Orduz kanpo ekarritako poltsak ez dira jasoko. Poltsetan baliozko objekturik edo objektu hauskorrik ez sartzea gomendatzen da. Antolatzaileak ez dira arduradun egingo objektu horiei gerta dakizkiekeen kalteez. Bestalde, parte-hartzaileak bere poltsa manipulatze baimena ematen du.

Igandea, uztailak 27 Dortsal zenbakia markatzea  - Munoa Plaza, Zarautz - Getaria (irteera gunea)	Bi sorbaldetan dortsala markatzea ezinbestekoa izango da. Markatze puntuak: - Munoa plaza, Zarautz: autobusa hartzeko puntuan + kontsignan. - Getariako portuan (irteera gunean).
Igandea, uztailak 27 Probaren hasiera: 11:00etatik aurrera  Oharra: talde batetik bestera 7 minutuko tarte eskainiko da. Getariako portua	Irteera talde bakoitzean gehienez 450 pertsona sar daitezke. Gehieneko denbora: 1 ordu eta 30 min. IRTEERA TALDEAK 1. taldea: Sub 40 min (urre kolorekoa) 11:00 2. taldea: 40-45 min (zilar kolorekoa) 11:07 3. taldea: 45-50 min (brontze-laranja kolorekoa) 11:14 - <i>IGERIKETA EGOKITUKO EH/ESP txapelketa</i> 4. taldea: 50-55 min (kolore berdea) 11:21 5. taldea: 55-60 min (kolore beltza) 11:28 6. taldea + 60 min edo partaide berriak (horiak) 11:35 7. taldea + 60 min edo partaide berriak (urdinez) 11:42 8. taldea + 60 min edo partaide berriak (kolore arrosa) 11:49 9. taldea + 60 min edo parte-hartzaile berriak (kolore gorria) 11: 56
Igandea, uztailak 27 Sari banaketa: 13:30  Munoa Plaza, Zarautz	SARI BANAKETA - Sailkapen nagusiko lehen 3 sailkatuak, gizonezko zein emakumezko kategorian. - Sailkapen nagusiko lehen zarautzarra, gizonezko zein emakumezko kategorian. - Kategoria bakoitzeko lehen 3 sailkatuak, gizonezko zein emakumezko kategorian. 25 edo 50 edizio egin dituztela egiaztatzen duten guztiei, telazko txapela bana emango zaie lortutakoaren oroigarri. Gainera, parte hartzaile guztiek zeharkaldiko domina bana jasoko dute. Barne ligako irabazleek (ZMZ + GZ sailkapena), absolutu mailan, sari ekonomikoa izango dute: 1º 1500€, 2º 1000 €, 3º 500 €. KATEGORIAK - Absolutua: lehenengo gizona eta lehenengo emakumea. - A1 kategoria (beteranoak): 65 urte edo gehiagokoak. - A2 kategoria (beteranoak): 55 eta 64 urte artekoak. - B kategoria (master+): 45 eta 54 urte artekoak. - C kategoria (masterrak): 35 eta 44 urte artekoak. - D1 kategoria (seniorrak +): 25 eta 34 urte artekoak. - D2 kategoria (seniorrak): 14 eta 24 urte artekoak. - E kategoria (infantilak): 11 eta 14 urte artekoak. - Lehenengo zarautzarra (edo Zarautz Balea igeriketa taldekoa). Partaidetza irekia da, lizentzia ez da derrigorrezkoa.


IBILBIDEA



GETARIAKO PORTUA (irteera puntua)




MUNOA PLAZA (anoa-gunea, kontsigna)



AUTOBUS ZERBITZUA

AUTOBUS ZERBITZUA (ZARAUTZ-GETARIA)



ORDUTEGIA

9:00 - 11:15



ARAUDIA

Proban parte hartu ahal izateko, derrigorrezkoa da parte-hartzaile bakoitzak probaren araudia irakurtzea eta bertako klausula bakoitza betetzea.

1. DATA ETA LEKUA

2025eko uztailaren 27a, Getaria-Zarautz (GZ)

2. ORDUTEGIA

GZ Nagusiak: 11:00

3. EGITARAUA

3.1. Getaria-Zarautz zeharkaldia: 11:00etatik aurrera eta 7 minutuko tarteetan, gizonen zein emakumezkoen kategoria absolutuetara IRTEERAK emango dira, Getariako portuan. Guztira bederatzi talde aterako dira.

3.2. Getaria-Zarautz zeharkaldiak 2.850 m izango ditu. Getariako portutik hasi, horri hondarretatik egin behar den ibilbidea gehitu, eta Zarauzko helmuga zeharkatu arte.

3.2. Igerilariaren ARDURA da irteera gunera ibilbiderako beharrezko baliabideekin hurbiltzea, irteera orduan antolatzaileen eta irteera epailearen agindupean egoteko.

3.4. Antolatzaileek Getaria-Zarautz probarako autobus zerbitzua jarriko dute (aukeran), Getariako irteera puntura joateko. Autobusak 09:00etan hasi eta 11:15ean bukatuko dira, urre, zilar edo brontze koloreko txanoa dutenentzat izan ezik. Hiru talde hauentzat, autobus zerbitzua 10:30ean amaituko da.

4. PARTAIDETZA

4.1. Getaria-Zarautz kategoriak:

- Absolutua: lehenengo gizona eta emakumea.
- A1 kategoria (Beteranoak): 65 urte edo gehiago.
- A2 kategoria (Beteranoak): 55 eta 64 urte artekoak.
- B Kategoria (Master+): 45 eta 54 urte artekoak.
- C kategoria (Masterrak): 35 eta 44 urte artekoak.
- D1 Kategoria (Seniorrak+): 25 eta 34 urte artekoak.
- D2 Kategoria (Seniorrak): 14 eta 24 urte artekoak.
- E Kategoriak (Infantilak, gazteak): 11 eta 14 urte artekoak.
- Lehenengo zarauztarra (edo Zarautz Balea Igeriketa klubekoa) eta lehenengo getariarra.

Kategoria ezberdinetarako azaldutako adina kontuan hartzerakoan, lehiaketa gauzatzen den urteko abenduaren 31ean betetako adina izango da kontuan.

4.2. Zeharkaldiak: Getaria-Zarautz zeharkaldia: 2011/12/31an edo lehenago jaiotakoak.

4.3. 2011an jaiotako parte-hartzaileek edozein zeharkalditan parte hartu ahal izango dute, norberarena izanik erabakia. Parte-hartzailearen klubari edo arduradunei eskatuko zaie kirol-irizpideak erabil ditzatela aukeraketa egiteko.

4.4. E kategoriko igerilariak Gipuzkoako Foru Aldundiko igeriketako edozein modalitatetako eskolarteko lizentzia edota federazio lizentzia eduki beharko dute.

4.5. Getaria-Zarautz zeharkaldiko partaidetza irekia da, lizentzia EZ da derrigorrezkoa.

5. IGERILARIAREN POLTSA JASOTZEA

5.1. Uztailaren 25ean, igerilariaren eta igerilariaren dortsalak eta poltsa jaso ahal izango dira, 12:00etatik 20:00etara, Munoa plazan. Era berean, uztailaren 26an, 12:00etatik 20:00etara jaso ahal izango dira Munoa plazan.

5.2. Uztailaren 27an, dortsalak eta poltsa jaso ahal izango dira 07:30etik 9:30era. Probaren egunean poltsa eta dortsala jasotzek 5€-ko kostu gehigarria izango du eta izena ematerakoan soilik kontratatatu ahal izango da.

6. IRTEERAK

6.1. Irteera talde bakoitzean gehienez 450 pertsona sar daitezke. Irizpide hori beste edozeinen gainetik egongo da irteeretan segurtasuna mantentzeko. Aurten, irteerak 7 minuturo izango dira, 11:00etatik hasita. Guztira, bederatzi talde aterako dira.

Irteera taldeen orduak ORIENTAGARRIAK dira, edozein ediziotan aldagarriak:

- 1. TALDEA (URREA): Sub 40 min.
- 2. TALDEA (ZILARRA): 40-45 min.
- 3. TALDEA (BRONTZEA ETA LARANJA): 45-50 min.
- 4. TALDEA (BERDEA): 50-55 min.
- 5. TALDEA (BELTZA): 55-60 min.
- 6. TALDEA (HORIA), 7. TALDEA (URDINA), 8. TALDEA (ARROSA) ETA 9. TALDEA (GORRIA): +60 min edo partaide berriak.

7. PROBA ETETEA, ARRISKU EZA

7.1. Antolakuntzak ibilbidea aldatzeko, irteera ordua aldatzeko edo proba beste egun batean egiteko ahalmena izango du. Irteera emango balitz, proba gauzatutzat emango da, nahiz eta bidean bertan behera utzi. Proba ezinbestez (kanpo arrazoiengatik) eteten bada, izen-emateengatik ordaindutakoa ez da itzuliko.

8. SAILKAPENAK eta SARIAK

8.1. Kategoriaren eta sexuaren arabera sailkapen orokor bat egongo da, eta baita banakakoa ere.

8.2. Probako eta kategoriako lehen sailkatuentzako sariak egongo dira, gizonezkoentzat zein emakumezkoentzat. Categoria absolutuko (ZMZ + GZ sailkapena) barne-ligako irabazleei eskudiruzko sari bat emango zaie (1- 1.500 €, 2-1.000 €, 3-500 €).

8.3. Sariak lehenengo zarautzarrentzat (edo Zarautz Balea Igeriketa klubekoentzat) eta getariarrentzat, emakumezko zein gizonezkoentzat.

8.4. Parte-hartzaile bakoitzak probaren oroitzapenezko domina bat jasoko du.

8.5. GZren 25 ediziotan parte hartu izana egiaztatzen duten pertsonen oihalezko txanoa emango zaie. 50 edizioen kasuan berdina izango da. Getaria-Zarautz zeharkaldiko sari banaketa 13:30 inguruan izango da Munoa plaza

9. ZIGORRAK eta AZKEN AIPAMENA

9.1. Erakundeak dagozkion zigorrak ezarri ahal izango ditu egiaztatutako denborak faltsutzen badira edo eskatzen den beste edozein baldintza betetzen ez bada.

9.2. Parte hartzeko, antolatzaileek gomendatutako denbora ordu 1 eta 30 minutukoa izango da GetariaZarautz (GZ) lasterketan. Bi proben segurtasuna bermatzeko, antolatzaileek muga horiek betetzeko gai izatea gomendatzen zaie parte-hartzaile guztiei. Hala eta guztiz ere, ez zaio denbora kenduko ezein parte-hartzaileari, eta partehartzaile guztiek amaitzen dutenean amaituko da. Debekatuta egongo da honako artikulua hauek erabiltzea:

- Hegatsak.
- Snorkel hodiak.
- Eskumuturrekoak, lepokoak edo antzekoak.
- WORLD Aquatics eta RFEN-WAQ APPROVED SWIMWEAR-ek onartu gabeko bainujantziak (jantzi neoprenoak).
- Palak.

Horri buruzko erreklamazio guztiak banan-banan aztertuko dira, sor daitezkeen salbuespenak konpontzeko.

9.3. Antolakuntzak lehiaketa honetarako lehiaketa zuzendari bat izendatuko du. Zuzendari hori izango da zeharkaldiko aginte nagusia lehiaketaren antolaketan eta lehenengo epaileari ez dagozkion beste eginkizunetan.

9.4. Getaria-Zarautz proban dortsalaren zenbakia bi sorbaldetan markatzea ezinbestekoa izango da.

9.5. Antolakuntzak ohartarazten du proba honek bere gogortasuna duela, eta ur irekietako itsas zeharkaldiek dauzkaten arrisku guztiak dituela. Hori dela eta, prestakuntza egokia izatea eskatzen da, baita osasun egoera ona izatea ere. Beraz, baldintza egokietan bukatzeko gai ez direnei izena ez emateko aholkatzen zaie. Antolakuntzak ez du inolako erantzukizunik izango zeharkaldian parte hartzeak parte-hartzaileei edo hirugarrenei eragin diezazkiekeen kalteen gainean, eta parte-hartzaileek, beren inskripzioarekin, beren gain hartuko dute haien erantzukizun osoa.

9.6. Sailkapenean (izen-abizenak) edo edozein komunikabidetan (argazkiak) datuen pribatasuna mantendu nahi duten pertsona guztiak, mesedez, jar zaitezte harremanetan antolakuntzarekin.

Babesle nagusiak



Babesleak



Babesle Instituzionalak



Laguntzaileak

